



2025EKO URAREN JAIA ANTOLATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1. Kontratuaren xedea

Baldintza Teknikoen Agiri honen xedea da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Uraren Jaiaren 32. edizioaren markoan aurrera eramango dituen jarduerak antolatzekeko laguntza teknikoaren lizitazio eta ondorengo esleipen prozesurako oinarri izatea, PROZEDURA IREKI bidez.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak urtero antolatzen du ospakizuna, Bizkaiko herritarren artean uraren erabilera arduratsua bultzatzeko sentsibilizazio eta partaidetza programaren barruan; helburu horrekin, ate irekien jardunaldi bat egingo da herritarrek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kontsumoko uren tratamenduan egiten duen lanera hurbiltzeko.

Aurtengo edizioan, 2025eko Uraren Jaiko ekitaldiak ekainaren 7an (larunbata) egingo dira, 10:30etik 19:00etara bitartean. Honako espazio hauek izango dituzte herritarrek erabilgarri antolatutako ekitaldiak garatzeko: Agirre Lehendakaria parkea (Arrigorriaga) eta Udaletxeko plaza; erantsitako 1. planoan mugatutako eremuak; eta Beteluriko (Arrigorriaga) Edateko Uren Tratamendutegiko instalazioen barruan antolatutako bisitak egiteko guneak –enpresa lizitatzailleek garatu beharreko eskaintzaren parte den bisita-programaren arabera eta Baldintza Teknikoen Agiri honetako oinarrien arabera egingo dira bisitak–.

2. Helburu orokorrak

Uraren Jaiaren markoan antolatutako ekitaldien helburua da uraren kontsumoaren praktika arduratsuei buruzko kontzientzia soziala handitzen laguntzea eta Beteluriko instalazioetan egiten diren prozedurak ezagutaraztea, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak herritar guztien ahaleginarekin Arrigorriagako instalazio horietan egiten duen lana hobeto ezagututa herritarren inplikazioa areagotzeko.

Aldi berean, jardunaldiaren izaera familiarra eta adin guztietako 4.000-5.000 pertsona inguruk parte hartuko dutela kalkulatuta, asko 0 eta 16 urte bitartekoak, aintzat hartu behar da ingurumenarekin lotutako dibulgazioko eta prestakuntza-eduki handiko ekimenez gain, izaera ludiko nabarmeneko jarduerak ere eskaini behar direla, askotariko aukerak uztartuz. Ondorioz, eskaintzek baldintzok kontuan hartu beharko dituzte beren proposamenetan, bai ezarritako jarduera-eremu osoa eta aurreikusitako publiko parte-hartzailea barne hartzeari dagokionez, bai antolatu beharreko jardueren izaera bera barne hartzeari dagokionez.

Horiek horrela, Uraren Jaiaren markoan egingo diren ekitaldien helburuak bost puntu hauetan zerrendatu ditzakegu:

- Kontsumitu aurretik egiten diren ura tratatzeko lanak hobeto ezagutu daitezen sustatzea.



- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak bere jarduketa-esparru osoan egiten duen lana osatzen duten elementuak ezagutu daitezen sustatzea, eta, zehazki, Beteluriko instalazioetan egiten direnak.
- Gure eguneroko bizitzarekin zuzenean lotutako ingurumen-alderdiak orokorrean ulertu daitezen sustatzea, jolasaren, frogapenaren, esperimentazioaren eta parte-hartzearen bidez, uraren kontsumo arduratsuari arreta berezia eskainiz.
- Jarrera hezigarria sustatzea adin-tarte zabaleko publikoaren parte-hartze inklusiboaren bidez, partaideen artean errespetuzko, lankidetzako, ulermen oneko eta alaitasuneko balioak sustatuz, bai eta hartzen gaituen ingurunearekiko errespetua ere, antolatutako jardueren inpaktua minimizatzea ekarriko duena ospakizuna amaitzean espazioak jatorrizko egoeran utzita.
- Jardunaldi komunitario baten garapena erraztea, adingabeek familiakoekin eta lagunekin parte hartze sustatuz, segurtasunez eta dibertsio-giroan, taldean ikusteko eta parte hartzeko jolasekin, jaiaren helburu nagusia diren sentibilizazio-mezuak positiboki helarazi ahal izateko alaitasun giroan, kirolaren, sormenaren, ideien adierazpenaren, jarduera fisikoaren eta irudimenaren eskutik.

3. Prozesuaren dinamika eta garatu beharreko zereginak

3.1. Prozesuaren dinamika

Eskaintza bakoitzak jarduera-programa bat aurkeztu beharko du, Uraren Jaiaren ideiarekin bat datorrena eta Baldintza Teknikoen Agiri honetan jasotzen diren baldintzen arabera. Horietako batzuk dagoeneko aipatu dira, hala nola okupazio-eremua, dimentsionamendua eta ospakizunaren eguna eta orduak:

- Uraren Jaia egiteko honako espazio hauek erabiltzeko aukera planteatzen da: Agirre Lehendakaria parkea (Arrigorriaga) eta Udaletxeko plaza; eta erantsitako 1. planoan mugatutako eremuak.
- Eremua 5.000 lagunek parte hartzeko prestatu behar da.
- Jaia ekainaren 7an, larunbata, egingo da, 10:30etik 19:00etara.

Eskaintzek beste alderdi hauei ere erantzun beharko diete:

- Enpresek laneko segurtasun- eta osasun-plan propioak izan beharko dituzte. Nolanahi ere, «Laneko Arriskuen Prebentzioa» 5. apartatuan deskribatutako eskakizunak bete beharko dituzte, kontratatutako enpresari ez ezik, jardunaldia antolatzeke eta egiteko lanetan parte hartzen duten enpresa eta/edo autonomo guztiei ere eragingo dietenak.
- Instalaziora bisitak egiteko programak segurtasun-neurri bereziak hartzea eskatzen du. Horregatik, hurrengo apartatuan zehazten den bezala, gehienez 25 pertsonako taldeentzat egongo dira dimentsionatuta bisitak, gehienez 60 minutu iraungo ditu bisita bakoitzak, eta gehienez bi talde izango dira aldi berean instalazioen barruan. Antolatzailiek bisita bakoitza egingo duten pertsonen alde aurreko erregistroa egin beharko dute (erregistroa ekitaldiaren egunean bertan egin ahal izango da).



- Bisitak prestatzeko, bisitak egin aurretik, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kontratatutako enpresaren eskura jarriko ditu langileak prestatzeko eta instalazioaren funtzionamendua ezagutzeko beharrezko baliabideak. Hala ere, bisitetan monitoretza-lanetan ariko diren langile horiek prestakuntza izan beharko dute ingurumen-zientzien, ingurumen-osasunaren edo antzekoen arloan. Eskaintzetan monitore taldea osatuko duten pertsonen kopurua adierazi beharko da.

- Era berean, kontratatutako enpresak arduradun bat izendatuko du, egin beharreko lan guztiak koordinatuko dituena Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin, garrantzi berezia emanez bisiten segurtasunari. Egunean zehar, monitoretza-lanetan arituko direnen egitekoa gainbegiratuta egongo da, eta bisiten programaz arduratzen den Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko pertsonaren agindupean egongo dira.

- Enpresek erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko dute, beren erantzukizuna estaltzeko, gutxienez 300.000 eurokoa.

- Uraren Jaiko mugatutako guneetako instalazioen muntaketa festa ospatu aurreko egunean hasi ahal izango da; zehazki, ekainaren 6an, ostirala, 13:00etatik 20:00etara egin ahal izango dira lanok, eta, ekainaren 7an, larunbata, 08:00etatik 10:00etara. Desmuntatze lanak, berriz, larunbatean bertan, hilak 7, egin beharko dira, behin jaia amaitzen denean. Jarduketok kontratatutako enpresak egingo ditu. Adjudikaziodunak zainduko ditu jaiaren instalazioak eta elementuak, muntaia hasten denetik jaia amaitu arte.

- Kontratatutako enpresa arduratuko da jardunaldia garatzeko instalatzen diren egiturak garbitzeaz eta desmuntatzeaz, eta erabilitako espazioa jardunaldia egin aurretik zegoen baldintza berberetan geratu beharko da.

- Lizitatzailerek esleipen-irizpideen atalean baloratuko diren jarduera hauek sartu beharko dituzte beren eskaintzetan:

Uraren Jaiaren jarduerak:

- Festarako mugatutako eremuetako jolaserako jardueren programa: haur eta gazteek jaian parte hartzea eta ondo pasatzea sustatu behar du, eta gutxienez 8-10 jolas edo atrakzio instalatu beharko dira, eskaintza bakoitzak zehaztu beharko dituenak. Aurreko edizioetan egin bezala, kirol ez hain masiboak sustatzea bilatuko da aurrean ere. Hala, iaz frontoi bat instalatu bazen haurrek euskal pilotara hurbiltzeko, aurrean skatea praktikatzeko espazio bat instalatuko da, eta erakustaldiak eta 6 urtetik gorako haurrei zuzendutako skate klaseak eskainiko dira.
- Tailer didaktikoen programa eta erakusketak Lehendakari Agirre parkean eta Udaletxeko plazan: ingurumen-arloko partaidetzako eta sentsibilizazioko jarduerak egingo dira bertan. Antolatutako jarduerak aurreikusitako pertsona kopuruari erantzun egokia eman beharko diote, eta, tailer didaktikoen kasuan, txikienei zuzenduta egon behar dira bereziki. Dena den, helduei zuzendutako ekimen osagarriak ere baloratuko dira, batik bat praktikoak badira eta eguneroko bizitzan aplikatu badaitezke.
- Festarako mugatutako eremuetako animazio-programa: gutxienez bost emanaldi eskaini behar dira egunean zehar (antzerkia, dantzak, musika...).
- Uraren Jaiaren irekiera aurreko batekin egingo da. Horregatik, kontratatutako enpresak jarduera gisa jaso beharko du programazioan aurrekoa.
- Jaiaren helburuarekin bat, bai eta gizartearen ingurumenaren aldetik arduratsuak diren jokabideak hedatzeko sentsibilizazioko dibulgazio-ekintzetan inplikatzearen asmoz ere, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak



Unesco Etxeak egiten duen lana aitortu nahi du. Horrenbestez, Euskadiko Unesco Zentroaren ordezkaritza batek jaian parte hartuko du, karpa batekin. Bertan, jardunaldi osoan zehar, munduko beste leku batzuetan saneamenduak duen egoera larriaren berri emango da ipuin kontalarien bidez; arreta berezia jarriko da adingabeek pairatzen duten egoeran.

- “Ez elikatu munstroa” kanpaina aprobetxatuz, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kanpainaren materialak jarriko ditu jai-perimetroaren barruan. Bide beretik, birziklatzearen eta hondakinak bereiztearen garrantzia azpimarratuko da, besteak beste, gure herri eta hirietan dauden edukiontzi motak nabarmenduz (organikoa, ontziak, kartoia/papera, olioak eta konposta).
- Eskaintzek Betuluriko Edateko Uren Tratamendutegiko instalazioetara bisitak egiteko programa aintzat hartu beharko dute, taldeak antolatzeke eta bisitaldiak egiteko bitartekoak antolatuz (bitarteko materialak eta pertsonalak). Bisitak egunean zehar egingo dira, 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 18:00etara, eta gehienez 25 pertsonako taldeentzat egongo dira dimentsionatuta, Bisita bakoitzak 60 minutu iraungo ditu gehienez eta gehienez bi talde izango dira aldi berean instalazioen barruan. Ildo horretan, aintzat hartu behar da industria-instalazio bat bisitatuko dela eta bisitak bertako derrigorrezko segurtasun-neurri guztiak betez egin behar direla. Bisitetan parte hartuko dutenak jaigunetik instalazioetara eramateko garraioa antolatu beharko da, bai eta instalazioetatik jaigunera ere bisita amaitutakoan.
- Beraz, beharrezkoa da eskaintzetan ondo zehaztuta jasotzea beharroi erantzuteko espazioak zeintzuk izango diren. Espazio horiek ikusteko moduko kartel edo seinaleekin adierazi beharko dira.
- Ingurumeneko eta dekorazioko programa: enpresa eskaintzaileak jarduera eremua girotzeko planteatzen dituen ekimenak azaldu beharko ditu, bai eta bertan Arrigorriagako Udalaren eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren identifikazio markak nola nabarmenduko dituen ere.
- Eskaintzek jaia iragartzeko erabiliko den irudia jaso beharko dute, hau da, egunaren balioak jasotzen dituen sormen-lana, ospakizunaren aurreko egunetan jendea erakartzeko bezain deigarria izan behar dena. Aukeratutako irudia, sormen-lana, Arrigorriagako Udalak eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak beren webguneetan eta komunikabideetan jaia iragartzeko argitaratzen dituzten karteletan eta iragarkietan erabiliko da.
- Azpiegitura-baliabideen programa: enpresek askotariko zerbitzuak hornitu behar dituztela hartu behar dute kontuan beren eskaintzetan, besteak beste, paperontziak, aldagelak, segurtasuna, sanitarioak, agertokiak, hesiak, edoskitze-espazioak dituzten haurren eremuak, aldagailuak, jaio aurreko elikadura eta abar.

Proposatutako instalazioen kalitatea, originaltasuna eta aniztasuna baloratuko dira, kontuan hartuta zer lotura duten Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren jarduera nagusiarekin eta erabiltzaileentzat egokiak ote diren (erabiliko dituztenen adina hartuko da aintzat).

4. Lanak egiteko kondizio orokorrak

4.1. Kontratistaren betebeharrak

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, Arrigorriagako Udalarekin lankidetzan, Baldintza Teknikoen Agiri honetan deskribatutako jarduerak ikuskatuko ditu, bai eta jarduketan horien diseinua, sorrera, ekoizpena, garapena eta kontrola ere.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, Arrigorriagako Udalarekin lankidetzan, enpresa adjudikaziodunari beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak ezartzeko eskubidea izango du, eskaintako aurrekontua aldatu gabe.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak kontratatutako lanen jarraipen zuzena egiteko aukera emango die Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eta Arrigorriagako Udalaren mendeko langileei, eta une oro emango die eskatutako dokumentazioa, emaitzak ebaluatu ahal izateko.

Jardunaldirako behar diren ur- eta elektrizitate-horniduren kostuei dagokienez, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eta Arrigorriagako Udalak sinatutako hitzarmenean ezarritakoa aplikatuko da, Arrigorriagako Udalaren jarraibideen eta araudiaren arabera.

4.2. Nahitaez bete beharreko beste klausula batzuk

Ingurumena zaintzen eta atmosfera hobetzen laguntzeko, Uraren Jaia antolatzetik eta garatzetik eratorritako jarduerak ingurunean gerta daitezkeen berotegi-efektuko gasen emisioak minimizatuko dituzte.

Era berean, Uraren Jaia antolatzeko ekitaldietan erabil daitezkeen interpretazio-material, material didaktiko, liburuxka, argitalpen eta paperezko beste edozein elementu baso-kudeaketa jasangarritik eratorritako paper birziklatuan edo ekologikoan egin beharko dira.

Enpresa esleipendunak, festan erabilitako identifikazio- eta girotze-materialen diseinuan zein sormen-lanean, Arrigorriagako Udalaren eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren irudi korporatiboa errespetatu beharko du.

Eskaintzek aurrekontu osoa Baldintza Teknikoen Agiri honen 3. puntuari deskribatutako edukia egituratzen duten kapitulu hauetan antolatuta aurkeztu beharko dute:

- Instalazioetara antolatutako bisiten programa.
- Jolaserako jardueren programa.
- Animazio programa.
- Tailer didaktikoen eta erakusketen programa.
- Munduan saneamenduekin lotuta dauden arazoen gaineko zabalkundea eta sentsibilizazioa, Unesco Etxearen eskutik.
- "Ez elikatu munstroa" kanpainako dibulgazio-materialak.
- Jaiaren irudia.
- Beste batzuk (erantzukizun zibileko aseguruia/azpiegitura-baliabideak/girotzea-dekorazioa...).

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak beretzat gordetzen du kontratatutako enpresak proposatutako diseinuan eta sormen-lanean aldaketak egiteko eskubidea, betiere ekitaldia egin aurreko faseetan, aurrekontua handitzea ez badakarte eta beharrezkotzat jotzen badira.

Enpresa adjudikaziodunak ekitaldia egiten den bitartean egiten dituen lanek datuak babesteko indarreko legedia bete beharko dute une oro, eta kontuan hartu beharko dute genero-berdintasuna sustatzeko lege ezarritakoa, hizkuntzaren erabilera ez-sexistari, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren irudia transmititzeari eta estereotipo sexistarik gabeko materialak sortu eta erabiltzeari dagokienez.

Era berean, arreta berezia eskainiko zaio gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera egokiari, batez ere zuzeneko arreta eta jendearekiko tratua dakarten zereginetan (barne hartuta langileekiko harremana eta jaiaren programaren barruan sortutako materialak).



Uraren Jaiaren dokumentazio inprimatu guztia bi hizkuntza ofizialetan izan beharko da, baita festa iragartzeko kartela ere. Bisitetako begiraleek ere taldeen beharretara egokitu beharko dute, betiere erabili beharreko hizkuntza euskara edo gaztelania bada eta ez beste hirugarren hizkuntza bat.

5. Laneko arriskuen prebentzioa

Adjudikaziodunari dagokio zerbitzua ematen den bitartean laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-jarduerak garatzeko beharrezko baliabideak antolatzea.

5.1 Aurretiko ekintzak

Lanak hasi aurretik, jarduera enpresarialak koordinatuko dira 31/95 Legearen 24. artikuluan eta eta 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta lanerako beharrezkoak diren koordinazio-bitartekoak esleituko dira, lanen arriskugarritasuna, langile kopurua edota nahasitako enpresak kontuan izanik, 171/2004 Errege Dekretuko 14. artikularekin bat etorritik.

Lanak hasi aurretik, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kontratuaren arduradunaren bitartez, honako hauek jarriko ditu kontratatutako enpresaren eskura:

- Beteluriko Edateko Uren Tratamendutegiaren Lan Kondizioen Arriskuen Ebaluazioa; bertan jasoko da kontratatutako enpresako langileek zer arrisku izango dituzten Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko instalazioetan egindako lanen ondorioz, bai eta arrisku horiek eragotzi edo arintzeko aplikatu beharreko neurriak ere.
- Beteluriko Edateko Uren Tratamendutegiko Autobabeseko Planean jasotako kanpoko enpresentzako jarraibideak eta instalazioen planoa, non elkarguneen kokapena adierazten den.

Lanak hasi baino lehen, honako dokumentu hauek entregatzeko eskatuko dio kontratuaren arduradunak enpresa adjudikaziodunaren ordezkariari:

- a) Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aurreko apartatuan adierazitako dokumentuak entregatu izanaren egiaztatzea, sinatuta eta zigilatuta.
- b) Egin beharreko lanen arriskuen ebaluazioa.
- c) Azpikontratazio-erregistroa.
- d) Lanetan esku hartzen duten langileen zerrenda.
- e) Segurtasuneko eta Prebentzio Baliabideko arduradunak izendatzea (azken hori, hala badagokio).
- f) Prebentzioko osasunaren zaintzaren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne).
- g) Langileentzako prebentzio-prestakuntza eta -informazioaren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne, halakorik balego).
- h) Norbera babesteko ekipamenduak entregatu izanaren erregistroa (langileek sinatuta, hala badagokio).
- i) Lanak egiteko erabilitako produktu kimikoen segurtasun-fitxa (hala badagokio).
- j) Laneko ekipoen erregistroa, hala badagokio (dokumentazio ofizialaren kopia barne, halakorik badago).
 - Matrikulatutako laneko ekipoen erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne).
 - Laneko ekipoen mugikorren, automotorren edo ez mugikorren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne, halakorik badago).
 - Altuerako aldi baterako lanetarako lantaldeen erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne, halakorik badago).
 - Garabi Mugikor Autopropulsatu erako laneko ekipoen erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne).



- k) Arrisku elektrikoa dakarten lanak egiteko langileen baimenaren/kualifikazioaren erregistroa, 614/2001 Errege Dekretuaren arabera (hala badagokio).
- l) Partzuergoko instalazioetara sartzeko baimen-eskaera.
- m) Antolaketa prebentibo mota.
- n) Erantzukizun zibileko aseguruia eta ordainketan egunean egotearen egiaztagiria.
- o) Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen egiaztagiria (hilero bidali beharko da).
- p) Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari egin beharreko kotizazioen egiaztagiriak, non langileen zerrendan zerrendatutako pertsonak jasota agertu beharko diren. Halakorik ezean, Gizarte Segurantzako alta-agiriak (langile sartu berrien kasuan) edo, hala badagokio, autonomoen ordainagiria.
- q) Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legea betetzen dela erakusten duten egiaztagiriak, bai eta lege hori garatzen duen indarreko gainerako araudia ere beharrezkoa balitz –adibidez, jardunaldiaren ezaugarrien arabera beharrezkoak izan daitezkeen anbulantzien eta gainerako laguntza-bitartekoen zuzkidurarekin lotuta–.

Horrez gain:

- a) Bereziki arriskutsuak diren lanetarako prebentzio-neurri espezifikoak ezarriko dira, hala badagokio.
- b) Edonola ere, elkarrekin identifikatuko dira kontratatutako enpresak eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aldi berean eta batera egindako ekintzen ondorioz sortu edo aldatu daitezkeen arriskuak.
- c) Kontratutako enpresak larrialdi-jarraibide bat egin beharko du, eta bertan zehaztu beharko du nola jardungo duen eta zer baliabide tekniko eta giza baliabide izango dituen Beteluriko Edateko Uren Tratamendutegiko Autobabeseko Plana aktibatu eta langile guztiak ebakatu behar badira.
- d) Jarraibide horiek kontratatutako langileek eta azpikontratutako enpresetakoek ezagutu beharko dituzte. Gainera, lantegiko segurtasun-enpresari ere kopia bat emango zaio.

5.2 Lanaren exekuzioa

- a) Kontratutako enpresari dagokio ziurtatzea zerbitzua ematen duten enpresek edo langileek arriskuen ebaluazioa eta lan-prozedura ezagutzen dituztela, bai eta beharrezko norbera babesteko ekipamenduak dituztela.
- b) Kontratutako enpresari dagokio Baldintza Teknikoen Agiri honetan jasotako lanetarako beharrezkoak diren babes kolektiboko ekipamendu guztiak edukitzea (adibidez, seinaleztapen-elementuak, balizatzeko elementuak eta beste). Horiek jartzea ere kontratatutako enpresari dagokio, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin eragindako eremuak eta ezarri beharreko igarotze-mugak adostu ondoren.
- c) Istripuren bat gertatuz gero Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren instalazioetan (alde batera utzita bajarik eragiten ote duen), kontratatutako enpresak berehala jakinaraziko dio kontratuaren jarraipena egiteko arduradunari, eta, arduradunak, aldi berean, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Prebentzio Zerbitzuari. Kontratutako enpresak istripua ikertuko du, eta nola lerketa Txostenaren hala Istripuaren Parte Elektronikoen kopia bat bidaliko dio kontratuaren arduradunari, eta beste kopia bat Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Prebentzio Zerbitzuari, hark beharrezko neurriak har ditzan.

Enpresa kontratistek, azpikontratistek eta langile autonomoek konpromisoa hartuko dute BBUPEk zehaztutako jokabide- eta jardura-arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea une oro errespetatzeko.



6. Izapidetzea

Prozedura irekia.

Bilbo, 2024ko abenduaren 18a

Irudi eta Erreprografiako zerbitzburua

JESUS MARIA MORAL SALGUERO 30607714G
Digitalki sinatuta